

PRENTSA OHARRA

45 PERTSONAK GAINDITU DITUZTE BILBOKO UDALTZAINGOKO 25 AGENTE-PLAZA BERRI BETETZEKO ENPLEGU ESKAINTZA PUBLIKOKO DERRIGORREZKO ARIKETA FISIKOAK

- Parte-hartzaileek bost ariketa fisiko gainditu behar zituzten, indarra, bizkortasuna, malgutasuna, erresistentzia eta autokontrolari dagokion sasoi ona frogatzeko. Azkenik, %93,7k gainditu du proba; horietatik %6,7 emakumeak dira eta %15,6, 35 urtetik gorakoak. Gainditu dutenen zerrenda www.bilbao.net udal webgunean kontsulta daiteke
- Hurrengo faseko lehenengo proba, nortasun-testa, irailaren 16an izango da, 11:00etan, UNED Bizkaia Zentroan (Ignacio Ellacuria Parkea, 2-3. Portugalete)
- Udaltzaingoa handitzeko deialdi honek, prebentzioaren eta gatazkak konpontzeko bitartekotzaren aldeko antolaketa-eredu berri eta hurbilago baterantz aurrera egitea ahalbidetuko du

Bilbon, 2014ko uztailak 18. Bilboko Udaltzaingoko 25 agente-plaza berrietako bat lortu nahian dabiltzan hautagaien %93,7k Enplegu-Eskaintza Publikoko (EEP) hautaketa-prozesuaren bigarren fasea gainditu zuten atzo.

Horrela, lehen ariketako proba teorikoak gainditu zituzten 48 pertsonetatik 45ek, indarra, bizkortasuna, malgutasuna, erresistentzia eta autokontrolari dagokion sasoi ona frogatzea xede zuten ariketa fisikoak (abdominalak, beso-flexioak, malgutasun sakona, 60 metroko abiadura-lasterketa eta 800 metroko erresistentzia eta abiadura-lasterketa) ere gainditu dituzte. Horietatik 3 emakumeak dira (hautagai guztien %6,7) eta 7k 35 urte baino gehiago dituzte (%15,6).

Gaurdanik, www.bilbao.net udal webgunean kontsulta daiteke onartutakoen zerrenda. Hurrengo faseko lehenengo proba, nortasun-testa, irailaren 16an izango da, 11:00etan, UNED Bizkaia Zentroan (Ignacio Ellacuria Parkea, 2-3. Portugalete).

2011ko martxoan Bilboko Udaltzaingoaren XIV. promozioa –34 agente-laneratuta eta gero, une honetan Udaltzaingoak behin-behinean bete ez diren 65 lanpostu huts ditu; promozio berriko 25 lanpostuak horien artean

daude.

Alde horretatik, enplegu-eskaintza publiko berriaren deialdia Udalaren osoko bilkurak abenduan egindako bileran onetsi zen, eta haren bideragarritasuna bermatzen duen Ekonomia eta Finantza Plan zehatz batek babesten du, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2012 Legean ezarritakoaren arabera.

25 udaltzain berriak laneratzeari esker, hurbilagoa den eta kalean agerpen handiagoa duen poliziaren antolaketa eredu berrirantz abiatu ahalko gara, eredu horrek gatazkak konpontzeko prebentzioaren eta bitartekotzaren aldeko apustua egiten duela.

Oposizio-lehiaketa

Aurreko aldietan bezala, Bilboko Udaltzaingoan agente berriak sartzeko Enplegu Eskaintza Publiko berri hau oposizio-lehiaketaren bidez gauzatzen ari da, eta 25 lanpostuetatik 9k euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna esleitua dute.

Proba teoriko orokorraz gain, oposizioa Bilboko Hiriari buruzko ezagutza-probak, ariketa fisiko bereziek, pertsonalitate probak eta elkarrizketa pertsonalak osatzen dute.

Fase hori gainditu eta gero, hautagaiek bederatzi hilabeteko prestakuntza-ikastaroa egin beharko dute Udaltzaingoaren Akademian eta Ertzaintzaren Arkauteko instalazioetan. Ikastaro horretan gaitasunak eskuratuko dituzte hainbat arlotan: autodefentsa, armen erabilera, araketen eta identifikazioen prozesua, larrialdietako egoeretako edo eztabaidetako bitartekotza, ibilgailuak gidatzea eta komunikazio-sistemaren erabilera. Horrez gain, beharrezko prestakuntza jasoko dute gaur egungo arazoei heltzeko: genero-indarkeria, adingabea biktima duten kasuak, adinekoentzako arreta eta kalean alkoholdun edariak kontsumitzea, besteak beste.

Azken urratsa udaltzain berriak urtebetean praktiketako funtzionario gisa lanean aritzea da. Aldi horretan kalean bertan lan egingo dute, armarik gabe eta eskarmentu handiko udaltzainekin batera, udaltzainak diren aldetik duten eginkizunari lotutako hainbat funtzio gauzatzeko, hala nola pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzea, zirkulazioa gidatzea, eta udal ordenantzak eta indarreko legedia betetzen direla artatzea.

Etengabe aldatzen ari den plantilla

2011ko martxoan Bilboko Udaltzaingoaren XIV. promozioko 34 agente berriak –28 gizon eta 6 emakume– sartu eta gero, une honetan Udaltzaingoak 800 langiletik gorako plantilla dauka, udaltzainak eta nagusiak (746 polizia) eta atxikitako administrariak kontuan hartuta.

Une honetan, Bilboko Udaltzaingoko agenteen %8,3 emakumeak dira, eta plantillaren batez besteko adina 47 urtekoa da.

1999tik Bilboko Udaltzaingoak plantilla berritu du zazpi promozioren bidez. Horiei esker, 270 udaltzain berri sartu dira, horrek %37ko gehikuntza dakarrela:

BILBOKO UDALTZAINGOA (1999-2011)	
PROMOZIOAK	AGENTE KOP.
1999ko Promozioa	20
2001eko Promozioa	11
2002ko Promozioa	78
2005eko Promozioa	40
2007ko Promozioa	42
2008ko Promozioa	45
2010eko Promozioa	34
GUZTIRA	270